

**3/2022 TXOSTENA, APIRILAREN 13KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU  
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.**

**XEDEA: BASQUETOUR-TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONTRATAZIO-  
MAHAIA ERATZEKO AGINDU-PROIEKTUA. OGASUN ETA EKONOMIA  
SAILBURUAREN ETA TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO  
SAILBURUAREN ARTEAN EGIN DUTE.**

**I.- AURREKARIAK.**

Ogasun eta Ekonomiako sailburuak eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak badute agindu-proiektu bat, haren bidez Basquetour-Turismoko Euskal Agentziaren Kontratazio Mahaia eratzeko; bada, 2022ko martxoaren 30ean, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak txostena eskatu zigun, ea guri zer iruditzen zitzaigun.

Espedientea Tramitagune bidez izapidetu da (prozeduren izapidetze elektronikorako aplikazio informatikoa), DNCG\_ORD\_1822/22\_12 erreferentzia du, eta, bestek beste, honako dokumentu hauek daramatza berarekin:

- Agindu-proiektuari buruzko memoria, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Turismo eta Ostalaritzako zuzendariak sinatua.
- Agindua, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, agindu-proiektua egiteko prozedurari hasiera ematen diona.
- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoaren txostena.
- Agindua, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, agindu-proiektuari alde zuzeneko onarpena ematen diona.

**II.- ESKUMENA.**



Txosten hau nahitaez eman behar da, hala jartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubideari buruzko Dekretuan, 27.a) 2 artikuluan (uztailaren 27ko 116/2016 Dekretua; aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), hain zuzen ere agindu-proposamenaren bidez eratzen den kontratazio-mahaia iraunkorra delako edo hainbat kontratu egiteko balioko duelako.

### **III.- KONTRATAZIO-MAHAIEIEN ARAUBIDE JURIDIKOA.**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak gurera ekarriak daude (transposizioa) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bidez (aurrerantzean SPKL). Bada, 326. artikuluan, kontratazio-mahaiak kontratazio-organoari laguntzeko kide anitzeko organo gisa arautzen ditu, baina, azken xedapenetako lehenaren arabera, 326. artikulua hori ez da oinarritzeko legeria.

116/2016 Dekretuak, berriz, kontratazio-mahaiak 8. eta 9. artikuluetan arautzen ditu. Zortzigarrenak, kide anitzeko organo horiek eratzeko eta kideak izendatzeko arauak dakartza; eta bederatzigarrenak, haien eginkizunen norainokoa zehazten du.

Oro har, 8. artikulua xedatzen du kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dutela esleipen-prozedura ireki, mugatu eta negoziatu publizitatedunetan, eta mahai hori izango dela eskaintzak baloratzeko organo eskuduna. Gaineratzen du ezen, lizitazio-iragarkiak argitaratu behar ez diren prozedura negoziatuetan, kontratazio-mahaia eratzea aukerakoa izango dela kontratazio-organoarentzat. Kontratazio-organoak du mahaia osatuko duten pertsonak izendatzeko eskumena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria izan ezik, hura bulego hrrretako titularrak izendatuko baitu.

Artikulu horretako 2. paragrafoan, kontratazio-organoari laguntzeko organo horiek eratzeko arauak finkatzen dira, eta ezartzen da kontratazio-mahaiak honako hauek osatuko dituztela: lehendakariak, idazkari-lanak egingo dituen pertsona batek eta, gutxienez, hiru kidek. Kide horien artean, bat, besteak beste kontratazio-organoaren aholkularitza juridikoaz arduratuko da; beste bat, aholkularitza teknikoaz; eta, gainera,



beste batek (kontu-hartzailea izan daiteke), kontratazio-organoaren ekonomia eta aurrekontua kontrolatzeko ardura izango du. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien arloko (IKT) ondasunak, azpiegitura teknologikoak eta zerbitzuak kontratatzen direnean, IKTen arloan eskumena duen zuzendaritzako pertsona batek parte hartu beharko du Kontratazio Mahaian, kontratazio-organo eskudunak izendatuta, Zuzendaritza horren titulartasuna duenak proposatuta.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako ordezkari batek ere parte hartu ahal izango du laguntza-organo horretan, kontratazio-organoak hala eskatuz gero. Kontratazio-organo horrek izendatuko du, Ondare eta Kontratazioko zuzendariak proposatuta.

Kontratazio Mahaia osatzen duten pertsonak izendatzeko moduari dagokionez, 8. artikulua 3. paragrafoaren arabera, behin betiko izenda daitezke, edo, berariaz, kontratu bakoitza esleitzeko. Ondoren zehazten denez, izendapen hori behin betiko egiten bada, edo hainbat kontratutarako egiten bada, agindu bateratu bat beharko da mahaia nola osatu zehazteko: kontratazio-arloaren eskumena duen saileko titularrak eta dagokion saileko titularrak edo erakundea atxikita dagoen saileko titularrak emango dute, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Eta beste baldintza bat ere badakar: kideen osaera eta identifikazioa kontratuaren administrazio-klausula zehatzen agirian sartuko dira, beti; eta dagokion kontratazio-organoaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da, kontratatze gaitasuna eta kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak kalifikatzeko bilera egin baino gutxienez hamar egun lehenago.

#### **IV.- KONTRATAZIO-MAHAIK KONFIGURATZEA.**

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, Eusko Jaurlaritzako sailak berregituratu zituenean, sail bakoitzari zer jardun-arlo zegokion ere zehaztu zuen, baita Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari ere. Aipatutako dekretuaren 2. Artikuluan datoz haren funtzioek eta jardun-arloak. Dekretu horretako 15. artikulua, berriz, dio bi erakundeok ere sail horretara atxikita egongo direla: «Kontsumobide-Kontsumoko



Euskal Institutua» administrazio-erakunde autonomoa, eta «Basquetour Euskal Turismo Agentzia» sozietate publikoa.

Geroago, urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuak beste konfigurazio bat eman zion Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari, esleituta dituen eginkizunak betetzeko antolaketa-egitura egokiagoa izan dezan. Eta 2. artikuluko b) apartatuan ezartzen denez, «Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia, Turismoaren Euskal Agentzia, Agencia Vasca de Turismo, S.A.» sozietate publikoa ere atxiki zaio.

Era berean, beharrezkotzat jo da Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari atxikitako Basquetour Turismoaren Euskal Agentziaren Kontratazio Mahaia eratzea.

## V.- AGINDU-PROIEKTUA.

Aztergai dugun agindu-proiektuaren bidez (hartarako eskatu baita Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena), Basquetour-Turismoaren Euskal Agentziaren Kontratazio Mahaia nola osatuko den zehaztu nahi da, behin betiko (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari atxikita dago).

116/2016 Dekretuko 8.3 artikuluan begiratu behar da jakiteko zer mailatako araua behar den eta zer organok duten eskumena kontratazio-mahaietako kideak izendatzeko, mahai horiek behin betiko badira edo hainbat kontratutarako balio badute, eta agindu-proiektuak gauza biak errespetatzen ditu.

Agindu-proiektuaren testuak kontratazio-mahaien erregulazioa aipa dezan (116/2016 Dekretuko 8. artikuluan dago jasota), azalpen-zatiaren seigarren eta zazpigarren paragrafoak honela idaztea proposatzen da:

*“Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. artikulua lehen apartatuak ezartzen duenez, kontratazeko eskumena Kontratazio Batzorde bati dagokionean izan ezik, kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute esleipen-prozedura irekietan, mugatuetan eta publizitatearekin negoziatutakoetan; kontratazio-mahai hori izango da eskaintzak baloratzeko organo eskuduna, eta kontratazio-organo horrek egin beharreko kontratazio-*



prozedurak

negoziatuko

ditu.

*Bestalde, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. artikulua 3. paragrafoaren bigarren lerroak adierazten duenez, kontratazio-mahaiko kideak modu iraunkorrean izendatzen badira, edo hainbat kontratu egiteko eginkizunak esleitzen bazaizkio, kontratazio-arloan eskumena duen saileko titularren eta dagokion saileko titularren edo erakundea atxikita dagoen saileko titularren agindu bateratuaren bidez ezarriko da haren osaera, eta erakundea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da”*

Agindu-proiektuaren 1. artikuluko b) apartatuko 2. paragrafoan ezartzen denez, kideetako bat Kontrol Ekonomikoko Bulegoari atxikitako kontu-hartzaile bat izango da. Urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuko 4. artikulua arabera (haren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina), sozietate publikoen kasuan Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ez du esleituta 116/2016 Dekretuaren 8.2 artikulua ekonomia- eta aurrekontu-kontrolaren funtzioa, hala nola Basquetourren kasuan. Eta, ondorioz, paragrafo horren testua aldatzea proposatzen da, araudiari egokitzeko, hau da, kendu “kideetako bat: kontrol Ekonomikoko Bulegoari atxikitako kontu-hartzaile bat, titularrak izendatua”, eta zehaztu nola izendatuko den eginkizun hori beteko duen pertsona.

Agindu-proiektuaren 1. artikulua b) letraren hirugarren apartatuan, honako idazketa hau proposatzen da, indarrean dagoen araudira egokitzeko: *informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) arloko zuzendaritza eskudunaren ordezkari bat, titularrak proposatua eta kontratazio-organoak izendatua, martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuan aurreikusitako kasuetan (36/2020 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kudeatzeko eredu arautzen duena).*

Agindu-proiektuaren 1. artikuluko c) letran, lehenengo tartekia honela idaztea proposatzen da: «c) Aholkularitza Juridikoko idazkari-bokala: zuzenbideko lizentziatura edo graduko unibertsitate-titulua duen nor edo nor».

Agindu-proiektuko 2. artikuluan honako idazketa hau proposatzen da, indarrean dagoen araudira egokitzeko: *nolanahi ere, kideen osaera eta identifikazioa kontratuaren administrazio-klausula zehatzen agirian sartuko dira, eta dagokion kontratazio-*



*organoaren kontratzaile-profilean argitaratuko da, kontratazeko gaitasuna eta kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak kalifikatzeko egin behar den bilera baino gutxienez hamar egun lehenago.*

Azaldutakoagatik guztiagatik, Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren agindu-proiektuaren **ALDEKO TXOSTENA** egiten dugu (haren bidez ezartzen da Basquetour-Turismoaren Euskal Agentziaren Kontratazio Mahaia), baina edukia txosten honetako jarraibide eta gomendioetara egokitu ondoren.